

INKULTURAZIOAREN OINARRIAK

Euskal kultura eta hizkuntzan inkulturatzeko batzordea

2019ko urtarrila



AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN EGOERARI BURUZKO IKUSPEGIA	4
1.1 Azken hamarkadetako loraldia	4
1.2 Euskara eta gure beste hizkuntzak	4
1.3 Gaur egungo egoera soziolinguistikoa	5
1.4 Euskara Jesusen Lagundiaren erakundeetan	6
1.5 Euskal kultura eta sekularizazioa	6
2. OINARRI INSTITUZIONALA: INKULTURAZIOA ETA JESUSEN LAGUNDIAREN LEHENTASUNAK	8
2.1 Inkulturazioa Jesusen Lagundiaren misioan	8
2.2 Loiolako Probintziatik Espainiako Probintziara	9
3. OINARRI HISTORIKOA: JESUITAK ETA EUSKAL KULTURA	11
3.1 Jesuita euskaltzaleen tradizioa	11
3.2 Hogeigarren mendea	12
4. OINARRI ESPIRITUALA: INKULTURAZIORAKO GAKO ETA IRIZPIDEAK	15
4.1 Jainko errukitsuaren begiradapean, mugetara deituak, adiskidetze misioan	15
4.2 Eguneroko erronka eta zailtasunei aurre egiteko zenbait orientabide	18

SARRERA

Dokumentu honen helburua Loiolako Lurralde Plataforman *Euskal kultura eta hizkuntzan inkulturatzeko proiektuarentzako* oinarri orokorrak ezartzea da. Aurrerantzean Lurralde Plataformako Inkulturazio Batzordearen bitartez martxan jar daitezkeen ekimenen aurretik horrelako dokumentu baten beharra antzeman zen, geure testuingurua deskribatu, gai honen inguruan egiten ditugun eginahalen izaera azaldu eta orientabide modura balio dezaketen gako batzuk emateko.

Dokumentuak kontenplazio ariketa bat eskaintzen du lehenik, euskara eta euskal kultura zertan diren ulertzen saiatzeko. Kontenplazio ariketa labur horren ondoren, gure testuinguruan inkulturazioa lantzeko hiru oinarri aipatzen dira, beste hainbat kapitulutan:

- Lehenengoa oinarri instituzionala da. Inkulturazioak Elizan eta Lagundian duen esanahia eta garrantzia azaldu ondoren, orain lantzen ari garen sektore arteko proiektua azken urteetan Lagundiak egindako ibilbidearen jarraipena dela azaldu eta Lagundiak gaur egun ezartzen dituen lehentasunen testuinguruan kokatzen dugu.
- Hurrengoa oinarri historikoa da. Bertan, jesuiten eta euskal kulturaren arteko harremanari begiratzen diogu. Batez ere, jesuitek historian zehar arlo honetan egindako lanaren aitortza laburra izan nahi luke kapitulu honek.
- Azkena oinarri espirituala da. Maila instituzionalean eta pertsonalean lagungarri izan nahi lukeen gogoeta jaso dugu hemen: inkulturazioari buruz, kristau fedearen, espiritualtasun ignaziotarraren, eta Jesusen Lagundiak gure testuinguruan duen misioaren argitan hausnartu, eta inkulturazio hori gauzatzeko gako batzuk eskaini.

Dokumentuaren erredakzioa Inkulturazio Batzordearena baldin bada ere, hainbat lagunek egindako ekarpenak jasotzen dira bertan. Parte hartu duten guztiei eskerrak emateaz gain, barkamena eskatu nahi diegu, testu honen helburuak gainditzen zituzten ekarpen aberats asko ez ditugulako jaso.

Azken ohar bat, testu honek duen mugetako bat argi azaltzeko. Gure gogoeta euskal hizkuntzaren inguruko gogoeta da nagusiki, nahiz eta jakin badakigun kultura hori baino askoz gehiago dela. Jesusen Lagundiaren 34. Kongregazio Nagusiaren hitzak dira ondokoak: «Kulturak esan nahi du pertsona talde batek bizi, pentsatu, sentitu, antolatu, ospatu eta bizitza partekatzeko duen modua. Kultura guztien azpian balore, esanahi eta munduaren ikuskeren sistema bat dago, eta horiek, kanporantz, hizkuntza, keinu, sinbolo, errito eta bizitzeko estiloetan adierazten dira» (4. dekretua, 3. oharra).¹ Guk hizkuntzaren gaian jarri dugu arreta gehien, une honetan gure lurralde plataforman euskararen inguruko adostasun minimo bat erdiestea egin dezakegun ekarpenik emankorrena izan daitekeelakoan.

¹ Kasu honetan eta ondorengoetan, Kongregazio Nagusien aipuak guk euskaratuak dira.

1. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN EGOERARI BURUZKO IKUSPEGIA

Ez dugu hemen euskara eta euskal kulturaren egoerari buruzko diagnostiko zehatza eskaini nahi, gaur egungo testuingurua ulertzeko gako nagusi batzuk azaldu baizik. Euskal kultura eta hizkuntzan inkulturatzeko ekimenak aurrera eramateko, lehenik errealitate hori gaur egun zertan den ulertu nahi genuke. Gai honen inguruan iritzi eta diagnostiko desberdinak egon daitezkeela onartuz, gure helburua guztiok partekatu dezakegun ikuspegi orokor bat lerro gutxitan azaltzea da.

1.1 Azken hamarkadetako loraldia

Gutxi jar dezakete zalantzan azken hamarkadetan euskarak eta euskal kulturak munduko beste kultura gutxituentzat eredugarri bilakatu den eboluzioa bizi izan dutela. Garapen hori mendebaldeko laburrean gertatu da gainera. XIX. mendeko korrante kultural, intelektual eta politiko batzuetan euskal kulturaren balioespen garrantzitsu bat azaldu bazen ere, gaur egungo testuingurua ulertzen laguntzen digun pizkundea 1960ko hamarkadan gertatu zen. Frankismoaren azken etapan azaldu ziren euskal literatura berria, Durangoko Azoka, euskal kantagintza, nazioarte mailako euskal artistak, euskarazko zinemagintzaren lehen urratsak, ikastolen mugimendua eta abar. Diktadura amaitzean, erakunde demokratikoen korrante horri instituzionalizazioa, ofizialtasuna eta bultzada berria eman zizkioten, eta azken hamarkadetan hartu diren neurriek euskara eta euskal kultura beste hizkuntza eta kulturen parean jartzeko saiakera irmoa osatu dute.

Horretan guztian berebiziko garrantzia izan zuen euskara batuaren egituraketak. 1960ko hamarkada horretan hizkuntza bateratu estandarra sortzea funtsezkoa izango zen, ondoren, hezkuntza sisteman euskararen erabilera gailentzeko, euskarazko komunikabideak zabaltzeko eta administrazioan euskara erabiltzeko aukera izan zedin.

Azken hamarkadetan euskararen alde egindako ahaleginen ondorioak nabarmenak dira gure gizartean, belaunaldi berriak askotan jabetzen ez badira ere. Iragan ez hain urrunean euskara guztiz behea jota zegoen hizkuntza zen, erakundeek gutxietsia, Elizatik kanpo apenas tradizio literariorik gabea eta testuinguru urbanoetan sekula presentzia normalizaturik izan ez zuena. Gaur aldiz, hizkuntza bizia eta modernoa dela esan daiteke, zailtasunak zailtasun eta etorkizuna bermaturik ez badu ere. Euskara belaunaldi, izaera, estilo eta —geroz eta gehiago— jatorri desberdineko pertsonak batzen dituen hizkuntza da; inguruko kulturekin lotsarik gabe aldera daitekeen sorkuntza literarioa du; eta gizarteko eremu gehienetara iritsi da, plazatik hasi eta administrazioan, nahiz eta oraindik hutsuneak nabarmenak izan.

1.2 Euskara eta gure beste hizkuntzak

Euskara lurralde honetako jatorrizko hizkuntza zaharra bada ere, ez da gure hizkuntza bakarra. Bertakoak dira ere gaztelania (Nafarroa eta EAEn) eta frantsesa (Iparraldean). Hizkuntzen arteko harremana ez da ordea orekatua. Euskara gutxiengoaren hizkuntza da. Bere egoera adierazteko *diglosia* hitza erabiltzen dute soziolinguistek. Alegia, erdarekin alderatuta

menpeko izaera du euskarak. Gaztelania eta frantsesa, zein bere lurraldean, gizarte eremu guztietan erabiltzen diren bitartean, ez da halakorik gertatzen euskararekin. Egoera diglosiko horren ondorioz, gure gizartean elebitasun asimetrikoa gertatzen da. Helduen artean ez da euskaldun elebakarrik geratzen —1980ko hamarkadan hil ziren azkenak—, eta euskal hiztun guztiek erdaraz dakiten bitartean, euskaraz ez dakiten herritar askok ez dute gabezia nabarmenik sentitzen.

Menpeko egoera hori, neurri batean, hizkuntzen arteko harreman naturalen ondorioa bada ere, ukaezina da euskarak garai desberdinetan sufritu dituen alboratze eta zapalkuntzaren eragina ere: debekuak, zigorrak, gutxiespena...² Esperientzia horien memoria kolektiboak injustizia baten biktima izatearen kontzientzia piztu izan du euskaldun askoren artean, eta izaera politikoa eman dio euskararen aferari ezinbestean. Horrek, aldi berean, biolentziak gaiztotutako eztabaida politikoarekin kutsatu du.

Bestalde, gure testuingurua asko aldatu da azken hamarkadetan. Batetik, ingelesaren nazioarteko nagusitasunak hizkuntza hori ikasteko beharra eragin du leku guztietan eta eragin nabarmena izan du gure gizarteko zenbait arlotan —unibertsitatean adibidez—. Bestetik, etorkin-komunitateek ekarritako beste kultura eta hizkuntzek euskararen gaia kulturartekotasunarekin lotu dute. Gizarte mailan testuinguru anitz hori kudeatzeko baliatzen dugun ikuspegiak eragin handia izango du euskararen etorkizunean. Helburua batzuen eta besteon arteko harremanak hobetu eta sendotzea da, elkar ezagutza errazteko eta euskara gure gizarte anitzean partekatu dezakegun tresna eta ondare modura erabiltzeko. Hori dela eta, euskararen eta atzerriko kulturen arteko hurbiltasuna bilatzeko ekimen ugari burutu da azkenaldian.

1.3 Gaur egungo egoera soziolinguistikoa

Azken hamarkadetan euskal hiztunen kopuruak gora egin du Euskal Herrian etengabe.³ Bost urtean 40.000 hiztun gehiago daude. Gaur egun, Euskal Herri osoan % 28 dira euskaraz hitz egiteko gai diren herritarrak, eta beste % 16 ulertzeko gauza dira. Hedakuntza gainera gazteen artean gertatu da batez ere. Gaur egun, horien erdiak baino gehiagok badakite euskaraz, duela 25 urte laurden batera iristen ez zirelarik.

Baina euskal hiztunen bilakaera ez da berdina izan lurralde batean eta bestean. Izan ere, hazkundera batez ere EAEn gertatu da eta neurri txikiagoan Nafarroan. Iparraldean, aldiz, galerak izan dira azken hamarkadetan, nahiz eta azkenaldian gazteen artean izandako igoera apalak itxaropenerako arrazoia ematen duen.

Euskararen erabilerari buruzko datuak ezagutzarenak baino konplexuagoak dira eta azken urteetan gai horri buruz sortu da hain zuzen kezka handien. Laburbilduz, esan daiteke euskararen erabilerak gora egin duela, baina batez ere eremu formalean gertatu dela: osasungintzan, administrazioan, hezkuntzan eta abar. Eremu informaletan aldiz —familian,

² Joan Mari Torrealdai (1998), *El libro negro del euskera*, Donostia: Tarttalo.

³ Nagusiki 1995. urtetik hasita erakunde ofizialek bost urtean behin egiten duten Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliko ditugu hemen. Azkeneko inkesta, seigarrena, 2016an egin zen.

kalean, lagunartean—, mantendu egin da azken hogei urteetan eta, azken inkesten arabera, herri euskaldunenetan jaitsi egin da zertxobait.⁴

Ezagutzaren eta erabileraren arteko distantziaren arrazoi batzuk gizarte mailako egoera diglosikoa eta desorekatua dira, baina euskaldunen hizkuntz gaitasunak ere eragin zuzena du. Euskaraz dakitenen ia erdiek, % 44, aitortzen dute erdaraz hobeto komunikatzen direla. Euskara, nahiz eta horietako askorentzat ama hizkuntza izan, «bigarren hizkuntza» da eguneroko bizitzan.

Euskarak eta euskal kulturak emandako aurrerapausoak gizarteko sektore zabalen borondateari esker egin dira. Etorkizunari begira ere, bide horretan jarraitzeko oinarri sendoena da euskarak ehundu duen kontsentsu sozial zabala. Euskararen erabilera sustatzearen alde daudenak gero eta gehiago dira: guztira gizarte osoaren % 56 alde eta % 16 kontra azken inkesten arabera. Baina hemen ere aldeak handiak dira. Nafarroan, biztanleen % 39 euskararen erabilera sustatzearen aurka dago eta Iparraldean % 17; EAEn aldiz, euskararen normalkuntzan pausu gehien eman dituen eremuan, ez dira % 10era iristen. Lehen aipaturiko kontsentsu zabala beraz, benetako neurri eraginkorrei dagokienez, EAEn gertatzen dela esan daiteke.

1.4 Euskara Jesusen Lagundiaren erakundeetan

Ikuspegi honetan aipaturiko ezaugarriek Jesusen Lagundiaren eta bere erakundeen errealitatea ere islatzen dute. Azken hamarkadetan emandako aurrerapausoak izugarriak izan dira: geroz eta euskaldun gehiago dago Lagundiaren erakundeetan eta euskarak eremu asko irabazi ditu. Hala eta guztiz ere, Jesusen Lagundiaren barruan euskarak bigarren mailako hizkuntza izaten jarraitzen du. Ingelesaren gorakadak eta etorkinek eragindako aniztasun berriak ere betebetean eragin diote Lagundiari.

Loiolako Lurralde Plataformako jesuita eta laikoek osatzen duten giza taldearen gehiengoa ez da euskalduna eta askok ez dute gabezia larririk antzematen horregatik. Euskarak ez gaitu batzen elkarte eta erakundeen barruan eta, horregatik, beti da gaztelania gure *lingua franca* — eta ingelesa hasi da funtzio hori betetzen batzuetan—. Hori gutxi balitz, euskarak ez gaitu batzen ere Lurralde Plataforma bezala: Gipuzkoako eta Araba eta Bizkaiko tokiko plataformetan badago euskararen presentziaren inguruko kezka eta interesa; Nafarroan aldiz, Jesusen Lagundiaren erakunde gehienetan euskara errealitate arrotza dela esan daiteke eta ez da antzematen gai honen inguruko eskaera handirik.

1.5 Euskal kultura eta sekularizazioa

Bi hitz euskal munduak azken hamarkadetan bizi izan duen sekularizazio azkar eta sakonari buruz. Europa guztian eragina izan duen prozesua izanik ere, gure testuinguruan gertaturiko berezitasunetako bat, deskristautzeak euskal kulturarekiko atxikimendu gehien duten sektoreetan izan duen indarra da.

Identitate politikoa eta kultura nahastu nahi ez baditugu ere, oso adierazgarriak dira Javier Elzo soziologoak inkesta desberdinen datuetan oinarrituta ateratzen dituen ondorioak: egun, gure

⁴ SEI elkartearen eta Soziolinguistika Klusterraren *Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa*, 2016ko neurketa.

artean, espainoltasun sentimendua fededun izatearekin korrelazionatuta dago, eta aldiz euskaldun sentitzea fedegabe izatearekin.⁵ Haatik, orain dela hamarkada gutxi, euskaldunek fede katolikoarekin lotura berezia zutela pentsatzen zen —XIX. mende hasierako diskurtsoetan sorturiko «euskaldun fededun» esapideak adierazten duen bezala—. Hain aldaketa azkarrak oso gauza bitxia dira giza zientzietan eta honen arrazoiak oraindik sakontasunez ikertzeko daude seguruenik.

Arrazoiak arrazoi, euskal munduak, bere aniztasun ideologiko eta politiko osoan, fedeari dagokionez oso errealitate sekularizatua osatzen du. Gaur egun erlijioarekiko interes gutxi dago giro euskaldunetan eta Elizaren aurkako jarrera erasotzaileak ohikoak dira. Vatikanoko II. Kontzilioaren ildotik eliz-giro herrikoi eta irekia ezagutu duten eremu euskaldunetan ere, Eliza erakunde autoritario eta zikiratzailetzat jotzen duten estereotipoak oso zabalduta daude.

⁵ Javier Elzo. 2014ko otsailean Loiola Zentroetan eskainitako hitzaldiak. Ikusi hemen: <http://javierelzo.blogspot.com/2014/02/la-secularizacion-2-parte-aplicacion-la.html>

2. OINARRI INSTITUZIONALA: INKULTURAZIOA ETA JESUSEN LAGUNDIAREN LEHENTASUNAK

2.1 Inkulturazioa Jesusen Lagundiaren misioan

Nahiz eta kontzeptua nahiko berria izan, inkulturazioaren gaiak sustrai sakonak ditu jesuiten eta Eliza osoaren historian. Berez, inkulturazioa Elizaren izaera unibertsalari lotutako kontzeptua da hasiera-hasieratik: «Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle» (Mt 28, 19).

Inkulturazioaren definizio ezagun bat Joan Paulo II.a aita santuak 1990eko *Redemptoris Missio* entziklikan idatzitakoa da: «Inkulturazioaren bitartez, Elizak Ebanjelioa kultura desberdinetan haragitzen du eta, aldi berean, herrialde desberdinak bere komunitatean sartzen ditu: herrialde horiei bere baloreak transmititzen dizkie, kultura horiek dituzten gauza onak bere egin eta barrutik berrituz» (52).

Jesusen Lagundiaren misiolaritza oso modu berezian ezaugarritu du inkulturazioak adierazten duen joera horrek. Lagundiaren Konstituzioen 402. puntuak dagoeneko argi adierazten digu Ignaziok eta bere kideek kulturari ematen zioten garrantzia: «herria edifikatzeko egoki predikatzen eta irakasten ejertzitatuko dira, eta hizkera ondo ikasiko dute (...) eta lan hori hobeto eta arimen fruitu gehiagorekin egiteko, bide guztiak erabiliko dituzte».⁶ Sentsibilitate hori agerian geratuko zen XVI. mendean, eta baita ondoren ere, munduko herrialde desberdinetan misiolari joandako jesuitek tokiko kulturekiko erakutsitako jarreraren: tokiko kulturekiko errespetu sakona erakutsiz, bertako hizkuntzetan trebatzeko hiztegiak eta gramatika liburuak idatziz eta herrialde horien inguruko ikerketetan aitzindari izanez.

1960ko hamarkadan kulturekiko kezka indarberritu egin zen, eta ondorioz, inkulturazioa gai garrantzitsu bihurtu zen ebanjelizazioari buruz hausnartzerakoan. Testuinguru horretan, Vatikanoko II. Kontzilioak hizkuntza eta kultura desberdinen balioespena ekarri zuen, batez ere *Gaudium et Spes* izenburuko konstituzio pastoralaren bidez. Olatu horren magalean, Pedro Arrupe aita jenerala izan zen, hain zuzen ere, inkulturazioaren kontzeptua Elizaren testuinguruan sartu zuena, modu profetikoan, bide berriak irekiz kristau fedea hainbat kultura desberdinekin topo egin zezan. Garai hartan, Jesusen Lagundiaren 32. Kongregazio Nagusiak (1974-1975) bere dokumentuetan nabarmendu zuen justiziaren aldeko lana ez zela eremu ekonomikora mugatzen, eta kultura ere bere baitan hartu behar zuela. Ondoren, 1978. urtean, Arrupek «Inkulturazioari buruzko eskutitza» zuzendu zion Lagundi osoari. Bertan honelaxe definitzen zuen inkulturazioa:

Eremu kultural zehatz batean kristau bizitza eta mezuaren haragitzea da. Ez da soilik esperientzia hau kultura horren berezko ezaugarriekin adieraztea (hori axaleko egokitzapen hutsa litzateke), baizik eta

⁶ Jesusen Lagundia (1998) *Jesusen Lagundiaren Konstituzioak eta Osatzeko Arauak*. Itzultzaile: F. Olariaga SJ. Loiolako Santutegia, 140. or.

printzipio inspiratzaile, normatibo eta bateratzaile bihurtzea, kultura hori eraldatu eta bir-sortu dezan, «sorkuntza berri bat» ahalbidetuz.⁷

Ondoren ere Lagundiak kulturaren inguruko bere ulermena garatzen jarraitu du. Bereziki aipagarria da 34. Kongregazio Nagusiak 1995ean onarturiko «Gure misioa eta kultura» dekretua. Bertan kulturaren ikuspegi orokorra eskaintzen zaigu, gai hori Lagundiaren misioan argi eta garbi txertatuz. Kultura desberdinekiko konpromisoa honela adierazten du dekretu honek:

Aitortu behar dugu gure mundua geroz eta kontzienteagoa dela kulturen eta horien aniztasunaren eskubideez, eta talde kultural bakoitzak bere ondarearen berezitasunak arrazoiz sustatzen dituela. Kultura desberdin horiek errespetatu behar ditugu beren sendotzeetan eta horiekin modu sortzailean kolaboratu. (27.2 puntua)

2.2 Loiolako Probintziatik Espainiako Probintziara

Euskal kulturaren eta hizkuntzaren inkulturatzeko Loiolako Lurralde Plataformaren proiektuak aurretik Loiolako Probintziak egindako gogoeta eta lanari jarraipena ematen dio neurri handi batean.

Loiolako Probintziak 2005. urtean *Jesusen Lagundiaren obren berezko ezaugarriak* agiria argitaratu zuen, bere erakundearen ignaziotar izaera osatzen duten ezaugarriak azaldu eta indartzeko helburuarekin. Bertan, «misioaren alde orokorreari dagozkien ezaugarrien» artean, inkulturatuta egon beharra jasotzen zen: «obra dagoen errealitate sozialean inkulturatzen da, kultura gutxituen aitortzea eta onarpena laguntzen ditu eta babesa ematen die». Elebitasunaren aldeko apustua ere egiten zuen dokumentu horrek: «elebitasuna pertsonen eta haien kulturaren errespetu eta arretaren adierazpen gisa ulertzen du».⁸ Urte batzuk igarota, Loiolako Probintziak dokumentu horrek jasotako ezaugarrien ebaluaketa prozesu bat jarri zuen martxan. Prozesu horren txostenetako batean adierazten zen inkulturazioari buruz erakundeek egiten zuten balorazioetan «dispertsio handia» zegoela eta erakundearen % 65entzat hobetzeko tarte zabala zela.⁹

Loiolako Probintziaren proiektuaren azken formulazioa 2009-2014 urteetarako egin zen. Bertan aurreko urteetako gogoeta eta edukiak eguneratu ziren. Inkulturazioari dagokionez —zortzigarren aukeraren barruan—, Probintziak bere lana «gure gizartearen kultura aniztasunaren bizipen positiboa lagunduz» eta «euskal kulturari lehentasuna emanez» egiteko konpromisoa hartu zuen.¹⁰ Era berean, dokumentu horrek berak 2016rako Probintziaren ikuspegi azaltzerakoan euskal kulturaren gaia zuzenean aipatzen zuen: Lagundiak hizkuntza eta kultura aniztasuna «aberastasun gisa» bizi behar zituen eta «euskal kultura eta hizkuntzaren inkulturatzeari aldeko aukera egin», horretarako «leku bakoitzeko berezitasunak aintzat hartuz».¹¹ Horrekin lotuta, dokumentu horrek —9. proiektuaren baitan— «hizkuntza normalakuntza» jasotzen zuen «indartu» beharreko «neurri esanguratsuak» aipatzerakoan.¹²

⁷ Pedro Arrupe (1978): «Carta y Documento de trabajo sobre la Inculturación», hemen: *Acta Romana Societatis Iesu*, 229-255 orr. (guk itzulia).

⁸ Loiolako Probintzia (2005) *Jesusen Lagundiaren obren berezko ezaugarriak*, 16. or.

⁹ Loiolako Probintzia (2011ko urtarrila): *Informe de la evaluación de rasgos de las obras 2010*, 5. or.

¹⁰ Loiolako Probintzia, *Probintziako egitasmoa: Misiorako testua eta 2009-2014ko Lerro estrategikoak*, 17. or.

¹¹ Loiolako Probintzia, *Probintziako egitasmoa: Misiorako testua eta 2009-2014ko Lerro estrategikoak*, 21. or.

¹² Loiolako Probintzia, *Probintziako egitasmoa: Misiorako testua eta 2009-2014ko Lerro estrategikoak*, 29. or.

Bestalde, inkulturazioaren gaia Espainiako Probintziak aldarrikatzen duen biziberritze apostolikoaren ikuspegitik ere uler genezake. Espainiako Probintziaren helburua ez da «berregituraketa huts» izatea, baizik eta integrazio prozesua Lagundiaren jatorrizko karisma eta identitatea osatzen duten «graziazko nukleoak» gaur egungo testuingurutik irakurrita biziberritzea.¹³ Borondate berritzaile orokor horren testuinguruan, Espainiako Probintziak bere ezaugarrien artean aitortzen du bere lurraldean aurkitzen diren aniztasun kulturaletan txertatu beharra.

Espainiako Proiektu Apostolikoak 2016. urterako bere ikuspegia definitzerakoan, puntuetako batean, probintzia berria irudikatzerakoan, zera esaten zuen: «modu baketsuan integratu behar da gure nazionalitate eta eskualde, kultura eta hizkuntza pluraltasunean, partekatzen dugun bokaziotik abiatuta».¹⁴ Gainera, horixe izan zen probintzia osoa plataformetan antolatzeko arrazoietakoa bat, eta oso bereziki lurralde plataformak eratzeko arrazoi nagusia. Adolfo Nicolás aita jeneralak 2010eko irailaren 10ean Elias Royón Espainiako probintzialari idatzitako eskutitzean azpimarratzen zuen plataforma horiek sortzearen helburua horixe zela hain zuzen: bateragarri egitea Probintziak beharrezko duen batasuna, ordura arteko probintzia desberdinen berezitasun eklesial, kultural, historiko eta linguistikoekin.¹⁵ Eskutitz hartan azalduko ikuspegi horixe jaso zuen, ia hitzez hitz, Espainiako Probintziaren proiektu apostolikoak egitura berriak definitzerakoan: plataformen bidez, Probintzian bermatu egiten da horrenbestez «batasunaren integrazioa, desberdintasunarekin; komunean duguna, tokiko berezitasunekin».¹⁶ Bertan gainera, lurralde plataformei dagokienez, «misorako testuinguru berezia» osatzen dutela aitortzen zitzairen, aipaturiko berezitasunengatik.¹⁷

Aldi berean, inkulturazioaren aldeko lana Espainiako Probintziaren batasun eta emankortasun apostolikoaren aldeko tresna bihurtzeko eskatzen zaigu. Aniztasunak konplexutasun gehigarria eragiten du. Hori dela eta, beharrezkoa zaigu «gure jarduteko moduak» aztertzerakoan Espainiako Probintziak egiten dituen oharra aintzat hartzea: zenbat eta konplexutasun gehiago, are handiagoa izateko eta jarduteko moduak konpartitzeko beharra ere. Inkulturazioaren aldeko lana, «indar disgregatzaileen kontrako terapia» bihurtzen asmatu behar genuke.¹⁸

Azkenik, proiektu honek Espainiako Probintziaren integrazio prozesuan azpimarratu zen beste eskaera bati erantzun diezaioke: misioak duen dimentsio globalaren ulermenari leihio berriak irekitzeko beharrari.¹⁹ Euskal kultura eta hizkuntzaren inguruan datozen urteetan lurralde plataforma mailan pilatu dezakegun esperientziak ekarpen garrantzitsua egin diezaioke Jesusen Lagundi osoari. Aniztasun geroz eta handiagoko testuinguruetan kulturen arteko harremanak modu aberasgarri eta ez gatazkatsuan ulertu eta bizitzeko esperientzia eredugarria gauzatzea da gure erronka.

¹³ Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 25. or.

¹⁴ Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 21. or.

¹⁵ Adolfo Nicolás SJ (2010), hemen: Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 4. or.

¹⁶ Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 72. or. (guk itzulia).

¹⁷ Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 55. or. (guk itzulia).

¹⁸ Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 30. or. (guk itzulia).

¹⁹ Adolfo Nicolás SJ (2008), hemen: Espainiako Probintzia, *Proceso de integración de las Provincias de la Compañía de Jesús*, 79. or.

3. OINARRI HISTORIKOA: JESUITAK ETA EUSKAL KULTURA

Jesusen Lagundia euskal gizartearen parte den neurrian, bertako gizarte eta kultur korranteak bere barruan bizi ditu. Aldi berean, Elizaren historia eta soziologia plurala kontuan izanda, ez da zaila euskararekiko eta euskal kulturarekiko harremanean adierazpen desberdin eta kontraesankorrak aurkitzea Lagundiaren historian eta gaur egun.

Zentzu horretan, gizalegezkoa da Jesusen Lagundiren 34. Kongregazio Nagusiak jesuiten historia osoa begiratzean egiten duen aitortza zintzotasunez geure egitea: «sarritan, ebanjelizatzaile jesuitak ez dira kulturaren bihotzean txertatu, presentzia arrotz modura egon dira» eta «batzuetan ‘kultura handiaren’, eliteen kulturaren alde jarri gara egoera konkretuetan, pobreen kulturari ez-ikusiarrena eginez. (...) Gure akatsak aitortzen ditugu eta orain Lagundiaren gorputz apostolikoan dagoen aniztasun eta kultur konplexutasunaz baliatzen saiatzen gara» (4. dekretua, 12. puntua). Ez dira ez falta historian euskara eta euskal kulturaren kontra aritu izan diren jesuitak eta ezaugarri horiek alboratu edo gutxietsi izan dituzten erakundeak.

Aldi berean, Jainkoari eskerrak ematen dizkiogu Jesusen Lagundiak historian zehar eta azken hamarkadetan euskal kulturaren garapenari egindako ekarpen oparoa ikustean. Lagundiaren misioarekiko konpromiso sendoak bultzatutako jesuiten eginahal itzela kontuan hartu gabe ezin da ulertu gaur egun euskarak eta euskal kulturak bizi duten egoera. Azterketa historiografiko sakonetan sartu gabe, San Ignaziok fundatutako Lagundiak gure artean duen izaera zizelkatu duen tradizio hori ekarri nahi dugu orain hona, oso labur bada ere. Baina ez dugu hemen aipatuko dugun izen bakoitzak Lagundiari, Elizari eta herriari egindako ekarpena jasotzeko helburu eta ahalmenik ere.

3.1 Jesuita euskaltzaleen tradizioa

Hemengo elizak laster ulertu zuen bere ideiak hedatzeko euskara erabiltzea erabakigarria zela. Herri hizkeren alde eginez dotrina euskaraz landu zuten aitzindarien artean daude bi jesuita: Nafarroako Muskitz herrian jaiotako **Francisco Elizalde** (1646-1733), eta, Iparraldean, **Bernardo Gazteluzar** (1614-1701) Ziburun jaiotako lapurtarra —Mitxelenaren ustez «XVII. mendeko olerkari finena»—.

Borondate ebanjelizatzaile hori modu naturalean uztartu zen hizkuntzarekiko eta kulturarekiko maitasunarekin. Nahasketa horren ondorio izan ziren euskararen historian horren garrantzitsuak diren jesuita handi batzuen eginahalak. Hiru dira izen aipagarrienak: Lehenengoa, **Manuel Larramendi** (1690-1766) andoaindarra, euskararen bikaintasunen ezagutarazlea eta euskararen lehen gramatika argitaratuaren egilea. Beste biak, bere jarraitzaileak izan ziren; biak predikari entzutetsuak eta Jesusen Bihotzaren debozioaren lehenengoetariko sustatzaileak: **Agustin Kardaberaz** (1703-1770), santu fama izan zuen hernaniarra, liburu erlijiosoen eta euskarari buruzko tratatu baten egilea; eta **Sebastian Mendiburu** (1708-1782), oiartzuarra, «Euskal Zizeron» ezizenez ezagutu izan dena, predikariak

eta gainerako kristauak beren hizkuntzan beharrezkoak zituzten lanak eskaintzeko gogo biziak bultzatutako idazlea.

Hiru horien garaikidea da **Agustin Basterretxea** (1700-1764), Lekeition edo Ispasterren jaioa. Kantatzeko bertsotan idatzi zuen, bizkaieraz, nahiz eta lan batzuk Kardaberazek gipuzkerara itzulita argitaratu ziren. Bere bertsoak Aste Santuan kantatu izan dira Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

Jesuitek ez zuten fedea zabaltzeko bakarrik erabili euskara. Ezaguna da **Francisco de Aleson** (1634-1715), Vianan jaiotako nafarrak —Nafarroako Erreinuko kronista ofizial eta Gaztelako jesuiten probintzialorde izango zenak—, 1665ean Filipe IV.a errege hil berriaren omenez euskaraz eginiko olerki bat. Gai desberdinak jorratu zituen **Joan Batista Gamiz** (1696-1773) olerkari arabarrak ere. Sabando herrian jaioa, anaia jesuita hau Mendibururekin lanean aritu zen eta euskaraz idatziriko bere sei olerki (guztira 238 bertso) gorde dira. Garai hartakoa da ere **Domingo Patrizio Meagher** (1703-1772) donostiarra, irlandar etorkinen semea. Bere kasua bitxikeriazat jo dezakegu: ardoari eskaini zizkion euskarazko olerki ospetsuengatik dago jesuita honen izena euskal literaturaren historian.

XIX. mendean, **Jose Ignacio Arana** (1838-1896) azkoitiarra aipatu beharra dago, garai hartan euskal literatura eta bibliografiaren ezagule sakonena. Harremanak izan zituen garaiko euskaltzale, euskalari eta euskal idazle guztiekin; poesia idatzi zuen, San Ignazioaren biografia bat, liburu erlijiosoak eta gramatikazkoak, eta Kardaberaz eta Mendibururen lana zabaldu eta gaztelaniara itzuli zuen. Bera izan zen lehen aldiz Lagundian euskara ikasteko eskolak sustatu zituen. Bere inguruan jesuita gazte mordoak euskara landu eta euskarazko olerkiak idatzi zituen.

Jesuita guzti hauen lana bereziki baliotsua da euskaraz hain gutxi idazten zen garai haietan.

3.2 Hogeigarren mendea

Gugandik gertuago, hogeigarren mendean, euskararen aldeko ahaleginak handiak izan ziren. **Raimundo Olabide** (1869-1942) gasteiztarraren ekarpena bereziki miresgarria da: 27 urterekin euskara ikasi ondoren, Euskaltzaindiako kide izan zen erakundea sortu zenetik, eta berak euskaratu zituen —eta Mensajero argitaletxean argitaratu— San Ignazioaren Gogojardunak (1914an), Tomas Kempisen *De Imitatione Christi* (1920), eta, garrantzitsuena, jatorrizko hizkuntzetatik itzulitako Biblia osoa (1958an, bera hil ondoren argitaratua).

Olabideren bibliari azken ukituak ematen **Patxi Etxeberria** (1900-1989) andoaindarra aritu zen, bera ere idazle, itzultzaile eta euskaltzain urgazlea. Milaka bertso idatzi zituen eta Euskal Esnalea, Argia, Egan eta Eusko-Gogoa aldizkarietan eman zituen ezagutzera. Jesuita asko bezala Errepublika garaian Belgikara erbesteratu ondoren, Txinan, Taiwanen eta Filipinetan ibili zen.

Mensajero argitaletxea aipatu dugunez, gerra aurreko garai hartan, 1919an, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria argitaratzeko erabakia hartu zuela esango dugu. Artean euskara baturik ez zen garaian, bi edizio argitaratu zituen gainera: bata bizkaieraz eta bestea gipuzkeraz. Bertan argitaratu zituen bere lehen lanak, artean jesuita zelarik, gerra aurreko belaunaldiaren erreferente nagusi den **Nikolas Ormaetxea Orixek** (1888-1961). Garai hartako beste izen

garrantzitsu bat Orixeren lagun min-mina izan zen: **Jose Maria Estefania Zabala** (1889-1942) bilbotarra, euskal literaturaren maitale eta dibulgatzailea, eta «Lauaxetaren eta beste zenbait euskal poetaren gidaria».²⁰

Iparraldean, **Pierre Lhande** (1877-1957) baionarra da aipagarriena. Irakasle, poeta, eleberrigile, hiztezigile, predikari eta polemista sutsua, munduan barrena —Europa, Hego Amerika, Madagaskar, India...— bidaiatu zuen eta Euskaltzaindiko lehenengo idazkari nagusia izan zen.

Espainiako Gerra Zibilaren ondoren hainbat jesuita egon zen euskara lantzen. Horietako asko **Patxi Altuna** (1927-2006) filologo, irakasle eta euskaltzain azpeitiarraren inguruan aritu ziren. Hainbat belaunaldi euskaltzalek ikasi zuten Patxi Altunaren eskutik euskal hizkuntza ikertzen eta euskal literatura klasikoa maitatzen. Bera eta **Gotzon Garate** (1934-2008) —elgoibartar jesuita eta literatur idazle oparoa azken hau— izan ziren Euskal Filologia ikasketen sortzaileak, eta lizentziatura hori eskaintzen lehena izan zen Deustuko Unibertsitatea.

Beste izen handi bat **Antonio Zavala** (1928-2009) euskaltzain tolosarrarena da. 1961. urtean, euskarazko liburuak argitaratzeko Auspoa argitaletxea sortu zuen, euskal herri-literaturaren gordailurik oparoena. Zavala euskal herri-literaturaren ikerlari eta biltzaile nekazina izan zen, nagusiki bertsolaritza arloan.

Beste hainbat jesuita aipa genitzake: **Plazido Mujika** (Urnieta, 1906-1982) euskaltzain urgazlea, 1965ean argitaratutako hiztegiaren egilea; **Roman Garate** (Elgoibar, 1925) —Gotzonen anaia— irakasle eta filosofiako zein etikako liburu mardulen idazlea; **Imanol Zaldúa** (Donostia, 1925-1996) literatur idazlea; **Frantzisko Olariaga** (Andoain, 1927) hizkuntzalari eta itzultzailea, eta abar. Talde modura, aipagarriak dira, Loiolako Probintzian, Bilboko Zabalbide kaleko egoitzan elkartu ziren jesuita euskaldunak eta baita Lagundiaren misioari eta euskarari buruzko diszernimenduan aritu zen Jesulagun Euskal Taldea (JET).

Historia gogoratzean izenak azpimarratu ohi badira ere, pertsona horiek erakundeetan aritu ziren lanean, eta askotan erakundeen apostolutzaren parte izan ziren haien eginahalak, edo erakundeen babespean egin zituzten ekarpen horiek. Adibide batzuk ekarriko ditugu hona. Dagoeneko aipatu dugun Mensajero argitaletxeak gerra aurretik egindako lanak jarraipena izan zuen ondoren ere: euskarazko liburuak gutxi argitaratzen zituenean, argitaletxe horrek 1970ean sortu zuen Etor bilduma, 1973an Gero izena hartuko zuena, euskararen eta euskal kulturaren garapenean katebegi garrantzitsua. Hainbat euskal idazlerentzat Mensajero eta Arantzazuko frantziskotarrak izan ziren argitaratzeko aukera bakarrak urte askoan. Bestalde, esan dugu Deustuko Unibertsitatea aitzindari izan zela euskal kultura eta euskararen inguruko ikasketen garapenean. 1976an eskaini ziren euskal filologiako lehen eskolak Deustun. Komunikabideen arloan ere, aipagarria da trantsizio garaian Herri Irratiak Gipuzkoan euskarari eta euskal kulturari emandako babesa. 1961ean hasi zen Loiolako Herri Irratia emititzen. Lagundiaren irratia Elizaren erakunde izateak testuinguru zail hartan ematen zion babesaz baliatu zen uhinak herritarrei eta haien kultur adierazpenei irekitzeko. Horrela euskarak ordura arte galarazita zituena eremuetara iritsi zitekeela erakutsi zuen. Liturgian ere berebiziko garrantzia izan zuen Herri Irratiak, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren Jose M. Bergara

²⁰ Patxi Altuna SJ, hemen: Elixabete Perez Gaztelu eta Esther Zulaika (ed.) (2002), *Haizeak ez eramango!*, Donostia-San Sebastian: Deustuko Unibertsitatea, 521. or.

jesuitak euskarazko liturgia irrati bidez zabaltzeko lan handia egin baitzuen. Horretaz gain, aipamena behar dute ere, pastoraltza arloan euskarari emandako tratamendua, gogo-jardunak euskaraz eskaintzeko egindako lana adibidez, edo azken hamarkadetan jesuiten zenbait ikastetxek euskaraz bizi eta irakasteko egindako apustua.

Azkenik, gogoan izan behar genuke jesuita batzuen eginahalak Lagunditik haratago ehundutako lankidetzen bidez egin direla ere, Elizaren baitan eta erakunde eta herri mugimenduetan.

4 OINARRI ESPIRITUALA: INKULTURAZIORAKO GAKO ETA IRIZPIDEAK

Ondorengo lerroetan euskal kultura eta hizkuntzarekiko konpromisoa elika dezaketen gako batzuk eskaini nahi genituzke. Kristau fedean, ignaziotar espiritualtasunean eta Lagundiaren Misioan iturria duten gogoetak dira. Euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoaren oinarriak jasotzen ditugu lehenik, eta ondoren, azken atalean, eguneroko erabaki eta zailtasunei aurre egiteko orientabideak.

4.1 Jainko errukitsuaren begiradapean, mugetara deituak, adiskidetze misioan

Jainko errukitsuaren begiradapean,

Kultura gizabanakoaren ezaugarri sakon den neurrian ez da bakoitzaren identitatean gehigarri arunt bat. Kultur izaerak, beste tasun askorekin batera, nor garen eta mundua ikusteko zer modu dugun ezaugarritzen du. Horrek zera esan nahi du: ez dagoela lagun urkoa maitatzerik ez bada haren kulturarekiko errespetu eta estima barne bilduz.

Euskal gizartea plurala da, eta baita euskal hiztunak ere: modu askotara izan gaitzke euskaldun. Are gehiago, gutako bakoitza ez da izaki homogeen eta aldaezina. Gure kultur izaera hainbat osagai desberdin eta aldagarrik osatzen dute. Baina euskaldun askorentzat, euskara eta euskararen inguruan eraturiko kultura, ezaugarri propio berezia da, haien izaera eta ikuskeraren atal garrantzitsua osatzen duena. Ezaugarri hori, gainera, gizartean, gutxitua eta ahuldua azaltzen da. Egoera horrek ordea ez du atxikimendu hori ahultzen, aitzitik, indartu egiten du. Pertsona horiekiko benetako begiruneak haien izaerak eragiten dituen zilegizko eskakizunei maila pertsonalean eta instituzionalean erantzutea eskatzen du.

Euskarari zor zaion begirunea bertako beste hizkuntzei zor zaienarekin bateratu beharra dago. Baina Jainkoaren errukia gizarteko justizia eta zuzentasun irizpideetatik harantzago doa. Kristauon Jainkoa —Jesusek «abba» edo «aitatxo» deitzen zuen hura— bere seme-alaba guztiak berdinean maite dituen Jainko errukitsua da, baina gurasoek haien seme-alabekin egiten duten bezalaxe —edo harago— Jainkoaren erantzuna bere seme-alaba bakoitzaren beharraren arabera da: zenbat eta gehiago behar, are maitasun eta erruki handiagoa jaso. Horixe da kristauon logika, gizartearen eredu eta jokaera guztiak iraultzera datorrena, Jainkoaren Erreina zabaltzeko asmoz.

Munduarekiko begirada errukitsu batek, Jainkoaren begiradak, zapaldua izan den eta ahultasunean bizi den kulturaren babesarekin bat egiten du ezinbestean. Jesusek Berri Oanean aldarrikatzen dituen zorionbideek, «Zorionekoak gose-egarri direnak!», esanahi bat dute gure kultur testuinguru zehatzean ere, eta euskararen eta euskal kulturaren murgildu eta horiek sustatzera eramaten gaituzte. Gose-egarri —normaltasun, ofizialtasun, berdintasun gose-egarri— dagoen kultura da euskal kultura.

Guztiak berdin-berdin errespetatu eta maitatu arren, gure barnean oihartzun berezia du izaki ahulenaren taupadak, biziraun nahian dagoenaren ahaleginak. Kristau izateari utziko genioke hala izango ez balitz.

...mugetara deituak,

Jesusen Lagundiak «muga» hitza erabiltzen du Elizan duen misio eta lekuaz aritzeko: «muga sozial, kultural eta erlijiosoetan» egotera deituta daude jesuitak, horrek ekar ditzakeen zailtasun, eragozpen eta arriskuak ere jakinik (35. Kongregazio Nagusia, 1. dekretua, 6. puntua).

Euskara ere muga da gure testuinguruan, hainbat arrazoiengatik:

1. Beste asko joango ez diren eremua delako, ez baitu «arrakastarik» ematen. Interesa zenbakietan jarriz euskararen mundura —pastoraltza arloan, esaterako— hurbiltzen denak, laster erabakiko du bere eginahalak beste leku batean «emankorrakoak» izan daitezkeela. Guk, ordea, dei berezi modura bizi dugu errealtate hori: neurri batean guk, eta ez beste inork, erantzungo diogu erronkari; guri bereziki dagokigun misio eremua da.
2. Euskal kultura, kultura gutxitua eta zauritua da, historikoki botere guneetatik urrun egon dena. Gutxietsia, baztertua eta une batzuetan debekatua izan da. Gaur egun ere, ospea banatzen den gizarte eremuetan ez da euskararik behar, eta hor euskal kulturak gehienetan funtzio anekdotikoa baino ez du. Arrazoi horiengatik, ordea, are handiagoa begitantzen zaigu Berri Onaren beharra testuinguru horretan.
3. Euskal kulturak gatazkaren marka darama. Azken hamarkadetan tresna politiko modura erabilia izan da, batzuetan bazterkeria eta gorrotoa bultzatzeko, besteetan aukera politiko zehatz batzuekin eta giza eskubideen urraketak egin dituztenekin lotzeko. Horregatik, ordea, konbentzituta gaude euskal kulturaren inguruan egiten ditugun eginahalek gure misioaren beste atal batzuei ere zeharkako ekarpen bat egin diezaieketela.
4. Sekularizazioak eragin bereziki indartsua izan du euskal kulturaren eta horren ondorioz, askoren ustez, eremu deserrosoa da Berri Ona ezagutzera eman nahi duenarentzat. Guk, aitzitik, mundu horretan lekukotza emateko dei bizia sentitzen dugu eta testuinguru horrek pertsona desberdinekin topatzeko eta elkarrizketarako aukera bikaina eskaintzen digulakoan gaude.

Erronka horri aurre egiteko, Ignazioren Gogojardunetan hain garrantzitsua den «inkarnazioaren kontenplazioa» lagungarri gertatzen zaigu. Errealtatea barnetik ikusterakoan, Jainkoak sentitzen duen samin bera sentitu nahi dugu eta Jainkoak errealtatearekiko duen konpromiso eta leialtasun berarekin erantzun nahi genuke, errealtatea osatzen duten giza harreman hautsi horiek sendatzeko neurriak bultzatuz gure ekintza bakoitzarekin.

...adiskidetze misioan

Jesusen Lagundiak darabilen «adiskidetze» kontzeptuak lagun hurkoarekiko —eta Jainkoarekiko eta Sorkuntza osoarekiko— harremanari buruzko ulerkera sakona adierazten du. «Adiskidetze eta justizia» misio zabal bat da guk aurrera eramane behar duguna. Gizakiok beharrezko dugun adiskidetze horrek kultura ere barne bildu behar du, benetako adiskidetzea izango bada. Kulturen arteko harreman dinamiko, emankor eta adiskidetua sustatu nahi dugu,

horixe baita Jainko errukitsuak bere seme-alabentzat nahi duen gizarte harremana eremu guztietan.

Gogojardunen gailurra den «maitasuna erdiesteko kontenplazioan» ikasten dugu Jainkoa gauza guztietan lanean ari dela, kultura guztietan eta une eta testuinguru guztietan. Kultura guztiak balioestera eramaten gaitu horrek: guztiak dira Jainkoaren isla. Munduko lorategi oparoan euskaldunok «lore mota berezia» osatzen dugu eta beste guztien adinako eskubidea dugu bizirauteko, Jose Miguel Barandiaran apaiz eta antropologo jakintsuak aldarrikatzen zuen bezala. Adiskidetzak babesa eta zaintza eskatzen ditu.

Euskal kultura horren barruan, euskal kristautasunak ere balio propioa du, kristau fedearen eta kultura berezi baten topaketaren emaitza baita. Euskal kristautasuna mendeetan zehar inkulturaturiko fede baten adierazpena da. Ibilbide horretan, kristau fedea euskal kulturara egokitzearekin batera, honek bere egin du kristautasuna. Nekez uler daiteke euskal kultura kristautasunaren ekarpena kontuan izan gabe. Ebanjelioaren eta euskal izaeraren arteko uztartzeari buruzko hausnarketa sakonetan murgildu gabe, esango dugu soilik, harreman horren balioaz konturatzeko nahikoa dela honakoaz jabetzea: euskal sen berezi horrek badu eraginik ere Ignazioren esperientzian, eta beraz ignaziotar espiritualtasun osoan.

Kulturak osatzen duen ongi baliotsu hori aitortzeak, baina, ezin gaitu ikuspegi esentzialista batera eraman. Kultura horrek garapen bat izan du gaur egungo egoerara iritsi arte eta hor kokatzen dugu gure benetako adiskidetze misioa. Peter-Hans Kolvenbach aita jeneralaren hitzak dira honakoak: «Justizia sustatzeak zera esan nahi du: geroz eta sakonago txertatu behar ditugula geure buruak herri eta nazioen bizitza konkretuetan, hauek benetan diren bezala eta ez guk izatea nahi genukeen bezala».²¹

Gaur egun, euskal izaera beste izaera batzuekin nahasturik eta hartu-emanen azaltzen zaigu. Euskaldun gehienok ezaugarri eta atxikimendu desberdinekin uztarturik bizi dugu gure euskalduntasuna modu naturalean. Horretaz gain, urrun gaude ametsezko hiztun idealetik: maiz erdarara jotzen dugu —halabeharrez, ohituraz edo nagikeriaz—, hizkuntza traketsa darabilgu eta gure kontsumo erabakiak —komunikabideena esaterako— ez datoz bat euskararekiko adierazi ohi dugun atxikimenduarekin. Haatik, hezur eta haragizko euskaldun horiengan du jarria Jainkoak bere begirada eta guk haien bidelagun izan nahi dugu eguneroko poz eta nekaldietan, inongo ezaugarriarik absolutizatu gabe.

Gaur egungo testuinguruan euskal kultura errealismoarekin eta aniztasun berriarekin hartu-emanen birsortzen ari direnen ahaleginak babestera deituak sentitzen gara. Izan ere, euskarari eta euskal kulturari behar dituzten espazio eta duintasuna bermatzea ez da aurrez finkaturiko «euskara» edo «euskal kultura» izeneko izate batzuei zor diegun ezer, gaurko munduan euskalduntasuna modu berrian bizitzen saiatzen diren sentsibilitate eta ikuskera desberdinak dituzten pertsonetikiko sentitzen dugun konpromisoaren ondorioa baizik. Eta hau guztia, gure testuinguruak gizarte mailan, erakundeetan eta maila pertsonalean eragiten dituen konplexutasun eta kontraesanak maitasunez begiratuz.

²¹ 34. Kongregazio Nagusiko 3. dekretuko 24. puntuan aipatua.

4.2 Eguneroko erronka eta zailtasunei aurre egiteko zenbait orientabide

Asko dira gai honen inguruan gure obretan egunero hartu behar diren erabakiak. Batzuk erabaki handi eta zailak dira, eta beste asko ia oharkabean egiten ditugun hautu txikiak. Nolako jokabidea izan behar genuke Jesusen Lagundiaren erakunde eta ekimenetan euskara eta euskal kulturari buruz? Horretan laguntzeko, Jesusen Lagundiaren jardunbidea ezaugarritu dezaketen orientabide orokor batzuk zerrendatzera ausartuko gara dekalogo modura:

1. **Ahultasuna onartu:** Erakunde eta gizabanako bezala, urrun gaude perfekziotik. Kultura eta hizkuntzen gaian ere, geure izaera kontraesankor eta hauskorra onartzeak gizatasun sakonagoa ematen digu, apalagoa eta lasaiagoa. Aitortu egiten ditugu gure akatsak eta gure ezintasunak, eta horrek ingurukoena ere hobeto onartzen laguntzen digu.
2. **Kulturartekotasunera ireki:** Arturo Sosa aita jeneralak azpimarratu duen moduan, mundializazioak sorturiko baldintza berriak kulturartekotasunerako aukera modura bizi ditugu.²² Gure kulturaz kontziente egiten gara, bai, baina absolutizatu gabe, kritikoki. Gizateria bakarraren parte sentitzen gara. Kultur aniztasunak pozten gaitu eta berdintasunezko harremanak sortzera bultzatzen gaitu, elkar aberastu ahal izateko.
3. **Elkarrizketa sustatu:** Elkarrizketak hurbilketa esan nahi du, beste pertsonaren lekuan jartzea eta elkarren arteko distantziak eta mesfidantzak gainditzea. Horretarako, pertsonak eta taldeek beren ikuspuntuak zabaltzea eta erdigune izatetik atera behar dute. Elkarrekin bizi gara eta gure desberdintasunak gaindituz elkarrekin haztera deituak gaude. Hizkuntza eta kulturaren gaia ekiditea edo arazorik ez balego bezala egitea ez da egokia. Hitz egin behar dugu honi buruz eta arlo guztietan oztupoak mahai gainean jarri, elkarrizketa konstruktiboa bilatuz beti.
4. **Justizia egin:** Hizkuntza bakoitzari behar dituen eremuak irekitzearen aldekoak gara. Hori betetzen ez denean —eta are gehiago, hori guk betetzen ez dugunean— egoera salatu edo aitortzeko joera dugu, argi geratu dadin gabeziak jakitun garelako eta hori konpontzeko beharra sentitzen dugula. Bestalde, kontrako arrazoi sendorik ezean, lehentasuna ematen diogu (hurrenkeran, ikusgarritasunean, kopuruan, etab.) hizkuntza gutxituari, normalean jaso ohi duen arreta txikiagoa neurri batean orekatzeko asmoz.
5. **Bateratu:** Banatua dagoena elkartzea eta kanpoan geratu dena integratzea da Jesusen jardunbidea. Ez dugu gure harremanetan bereizketarik egiten edo inor kanpoan uzten: gizabanako bakoitza da gure lehentasuna eta guztiei egiten diegu tokia. Euskara ezin da pertsonengana hurbiltzeko eta guztiok elkartzeko oztupo izan. Baina, denok eroso eta berdintasunean sentitzeko gure asmoarekin batera, eginahalak egiten ditugu horrek euskara alboratzea ekar ez dezan, hori ere bazterkeria modu bat delako. Zenbait adibide:

²² Arturo Sosa SJ, «La educación de la Compañía: una pedagogía al servicio de la formación de un ser humano reconciliado con sus semejantes, con la creación y con Dios». Jesusen Lagundiko Hezkuntza Delegatuen Nazioarteko Kongresuan hitzaldia, 2017ko urriaren 20an, 6-9 orr. Hemen: <http://revistasic.gumilla.org/wp-content/uploads/2017/10/SOSA-Arturo-EDUCACION-JESUITA-HOY-RiodeJaneiro-1710201.pdf>

- a. Euskara berezkoa den lurralde eremuetan, tokia egiten diogu gure ekitaldi guztietan nahiz eta batzuek euskara ulertu ez.
 - b. Euskaldunek euskaraz egitea eskertzen dugu, euskaraz ez dakien jendea aurrean egonda ere, hori ez baita bazterkeria, aitzitik, gure aniztasunaren adierazpena baizik.
 - c. Euskara eremu eta postu batzuetarako baldintza izatea gure zerbitzua behar bezala eskaintzeko eta gorputz bezala sendotzeko ezinbesteko neurria dela ulertzen dugu denok.
 - d. Gure testuinguruan batasunari egin diezaiokegun mesede handienetako bat euskara ikastea dela adierazten dugu.
6. **Lagundu:** zentzumenak irekita izan behar ditugu premiak aurkitzeko. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremanek eskakizun bereziak sortzen dituzte. Arazoak, zailtasunak, kexuak arreta osoz entzun behar ditugu. Bestalde, laguntzeko prest egoteak gizabanako bakoitzarekiko eta haren erabakitzeko askatasunarekiko errespetu sakona eskatzen digu.
 7. **Testuinguruari erne egon:** Gure jarduera inkulturatzeko beharraz jakitun, gure irizpidea eta exigentzia maila testuinguru bakoitzera egokitzen ditugu. «Testuingurua» diogunean, geografikoa edo misio esparrukoa esan nahi dugu: ez da gauza bera Azpeitia edo Tuteran, eta ez da gauza bera ikastetxea edo etorkinei laguntzeko zentroa.
 8. **Neurrizkoa izan:** Ez ditugu gainontzeko lehentasunak hizkuntzen tratamendu guztiz orbangabe batek eskatzen dizkigun esfortzu eta baliabideen menpe jartzen. Baina hau ez dugu aitzakia modura erabiltzen, eta egunero gure elebitasuna (edo eleaniztasuna) areagotzeko konpromisoarekin orekatzen dugu.
 9. **Magis ignaziotarra bilatu:** Kontenplazioak zorrotzu egiten ditu gure zentzumenak, bizitzak eskaintzen dizkigun ñabardurak eta aukerak sumatzeko. Sormena erabiltzen dugu bide berriak urratzeko. Hizkuntzak eta kulturak kudeatzerakoan, ekarpen eraldatzaileak egin nahi ditugu eta, horregatik, ez dugu ontzat ematen besterik gabe ezarritakoa, betikoa. Irtenbideak bilatzen ditugu, eta irteerarik gabeak diruditen egoeretan, hobetzeko eta hazteko aukerak antzematen saiatzen gara. Horrekin batera, diszernimendua aplikatzen dugu aukera desberdinen artean egokiena zein den asmatzeko.
 10. **Eskertu:** Gure espiritualtasunaren giltzarrietako bat da esker ona, jarrera erabakigarria delako guztion bizitzan. Hizkuntza eta kulturei dagokienez ere, zoriondu eta eskertu egiten ditugu berdintasunaren aldeko eginahalak, lorpen bakoitzaren protagonista sentitzen gara eta poza partekatua izan dadin saiatzen gara.